



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/04/24

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek, Jesus Mari Lazkanok Gernikako bonbardaketaren inguruan egindako artelan bi aurkeztu ditue**

Gernikako Batzarretxeak, hegazkin nazien bonben aurrean zutik irautea lortu eban Gernikako eraikin gitxietako batek, eguazten honetan 80 urte beteten dituan bonbardaketaren biktimen omenez Jesus Mari Lazkano margolariak margotu ebazan artelan biren aurkezpen ekitaldia jaso dau gaur. Aurkezpen ekitaldian Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidentea egon da, eta beragaz batera Gernikako erakundeen eta alkarteen ordezkariak.

Koadru biak, bonbardaketaren 75. urteurrenean argitaratu zan "Sustrai erreak-2. Guernica 1937" argitalpenerako egin ziran. Gernikazarrak eta Aldaba aldizkariak bultzatutako argitalpen hori funtsezko lana da orain zortzi hamarkada Gernika suntsitu eban bonbardaketaren aurreko eta osteko egunetako errealidadea zehaztasun osoz ezagutzeko.

Batzar Nagusietako Presidenteak adierazo dauenez, Lazkanoren artelanen aurkezpeneko ekitaldia, "Gernikak jasan eban bonbardaketaren eta suntsiketaren tragedia gogorazoteko" gaurtik aurrera herri honetan egingo diran ekitaldiei Bizkaiko Batzarrek egingo deusien ekarpena da. "Oroimen historikorako geure ekitaldia da", esan dau.

Artelanak Gernikako Batzarretxeko Leiarpeko Aretoan egongo dira, eta Bizkaiko Batzarretako egoitzaren erakusketa egonkorraren parte bilakatuko dira "bonbardaketaren oroitzapena bizirik eukiteko eta oroimena berreregiten laguntzeko". Lazkanoren artelanek, orain 80 urte bertan gertatutakoa gogorazoko deutse Batzarretxeak urtero jasoten dituan milaka bisitariei. "Gernika kruekeria bereziagaz suntsitu eban faxismoak, herria eta bere Arbola 'Askatasunaren etxearen' sinbolo diralako".

Margolan "dardaragariagaz eta hiperrealisteagaz", Lazkanok "derrigorrez eroaten gaituelako orain 80 urteko apirilaren 27ko goizeko lehenengo orduetara, sua oraindino amatau barik egoan unera, aurreko egunean euskaldunok gehien maite genduan herria zanaren hondakinen artera" esan dau.

Jesus Mari Lazkano (Bergara, 1960) azken hamarkadetako euskal artista interesgarrienetakoak, EHUko Arte Ederren Fakultatean ikasi eban, eta 1985etik pintura irakaslea da unibersidade horretan bertan. Margolari moduan egin dauen ibilpidea irakasle moduan egin dauenaren ondoan joan da, arteren munduan nagusi zan giroaren kontrako bidean jarten eban hiperrealismoari leial izanda.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
24/04/2017

## **Las Juntas Generales presentan dos obras de Jesús Mari Lazkano sobre el bombardeo de Gernika**

La Casa de Juntas de Gernika, uno de los pocos edificios de la villa foral que sobrevivió a las bombas de la aviación nazi, ha acogido hoy la presentación de dos obras que el artista Jesús Mari Lazkano pintó en honor a las víctimas del bombardeo del que se cumplirá este miércoles el 80 aniversario. A la presentación ha acudido la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, quien ha estado arropada por una representación asociativa de la villa foral.

Los dos lienzos fueron creados por el artista para ilustrar la publicación "Sustrai erreak-2. Guernica 1937" editada en el 75 aniversario del bombardeo. Esta publicación, promovida por Gernikazarra y la revista Aldaba, es una obra clave para conocer con todo detalle la realidad de aquellos días anteriores y posteriores al bombardeo que asoló la villa foral hace ocho décadas.

La presidenta de Juntas ha señalado que el acto de presentación de las creaciones de Lazkano supone la contribución del Parlamento vizcaíno "a los actos de conmemoración y recuerdo vivo de la tragedia del bombardeo y destrucción de Gernika" que se están celebrando desde hoy en la villa foral. "Es nuestro acto de Memoria Histórica", ha dicho.

Las obras estarán expuestas en la sala de la vidriera de la Casa de Juntas y formarán parte de la exposición permanente de la sede parlamentaria vizcaína para "mantener vivo el recuerdo del bombardeo y ayudar a reconstruir la memoria". La obra de Lazkano recordará a los miles de visitantes que recibe la Casa de Juntas, lo que allí ocurrió hace 80 años. "Gernika fue masacrada con especial saña por el fascismo porque la villa y su Árbol representan la casa de la libertad", ha sostenido Otadui.

Con su pintura "estremecedora e hiperrealista", Lazkano "nos obliga a estar presentes en Gernika al amanecer del día 27 de abril de hace 80 años, con el fuego todavía ardiendo entre las ruinas de la que solo el día anterior era la ciudad más querida de los vascos", ha dicho.

Jesús Mari Lazkano (Bergara, 1960) uno de los artistas vascos más interesantes de las últimas décadas, se formó en la Escuela de Bellas Artes de la UPV y desde 1985 es profesor de pintura en esta misma universidad. Su carrera como pintor ha marchado en paralelo a la actividad docente, fiel a un hiperrealismo que le situaba a contracorriente del ambiente artístico dominante.